



## ***Ezkaurre Irailak 22 larunbata***



Ezkaurre (aragoieraz *Penya Ezcaurri*) Mendebaleko Pirinioetan dagoen mendia da, Erronkariko bailara (Nafarroa) eta Ansoko bailararen (Huescako probintzia) artean alegia.

2.050 metro dituenaz, Euskal Herriko mendi altuenetan bigarrena da (Hiru Erregeen Mahaia da guztietan altuena, 2.428 metrorekin).

Ezkaurreren gailurretik Isabaraino 12 kilometroko distantzia banatzen gaitu, guztira 14 bat kilometro izanik



**Irteera ordua:** 7:00etan Estadioko atetik. Itzulera 20:00etan Gasteizen.

**Zailtasuna:** Ezkaurreko igoeraren zailtasunak arrokaz osatutako ibilbidean datza. Gure kasuan teknikoki erreza den igoera egingo dugu. Desnibel fuerteak dauzkaten maldak izanik.

**Ibilbidea:** Zurizako portuaren azken bihurgunetan hasiko dugu gure ibilbidea. Bertan autobusetik jeitsi eta bailara horren igoera

normalari ekingo diogu. Hasierako zatia nahiko maldatsua bada ere, deskantsatzeko tartearik usten dizkigu.

Abizondoko koilatura helduko gara pagadian sartuta. Puntu honetatik aurrera harriz osatutako bidea izango dugu gailurreraino.

Bertan, ikuspegaz gozatu argazki sorta egiteko aukera izango dugu ere eta jeitsierari ekingo diogu. Hegoaldeko norabidea hartuta apurka apurka belabarzeko arroilara helduko gara.

Berriro basoan barna ekingo diogu bideari Isabara heldu arte.

**Lurzorua::** Mixtoa arroka eta belarra, zonalde kárstikoa izanik arrokako, basoetako eta larre inguruneak topatuko ditugu. Nahiz eta, gure ibilbidea teknikoki erraza izango den.

**Erritmoa eta ordutegiak:** Denok lasai eta gustora joateko erritmo bat eramango da, hau da, taldera moldatutakoa, ez ditugu markak hautsiko. Ibilbidean zehar hainbat geldiune egingo dira. Egunean zehar ez dira oso luzeak izango ez ozteko, eta luzeago bat bazkaltzeko.

**Beharrezko materiala:**

- Arropa beroa
- Uretako Txaketa
- Txanoa eta guanteak
- Eguzkirako betaurrekoak
- Bastoiak (jeitsietarako gomendagarriak)
- Eguzkitako krema
- Mendi edo trekking-eko botak “eginak” sola berriarekin.
- Eguna pasatzeko jana eta edaria.

**Zuen gidak**

**Ibai Rico:** Geografoa, glaziologoa eta geografi irakaslea UPVn Patagonian, Artikoan eta Himalayan ikertzen ibili da. Alpinista eta eskalatzailea hainbat mendikate bisitatu ditu, baita pirineoak puntarik punta HRPtik zeharkatu ere. Alpeetan, Kilimanjaron, Kaucaison, Norbegian eta Atlasean izan da lanean beste batzuen artean.

**Unai García:** Eskarmentu handiko alpinista, Pirineotan, Alpeetan eta Atlasean ibilitakoa, mendi-ertaineko gida eta irakasle moduan orientazio, autoreskate, lan bertikaletan eta ekintza gidatuetan izaten da lanean. 2013tik geroztik Estadioan ere gida lanetan dihardu Pirineotan eta Euskal mendieetatik.